



# Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzaren sustatzeko programa.

## IV. ERANSKINA : ELKARLANA

Urtea :2019 | Ekonomia Sustapena

### DESKRIBAPENA

Gaitasun lehiakorak bultzatzea enpresen arteko lankidetzaren bitartez, proiektu jakin batzuk eta enpresa aukera berriak garatzeko dimentsio egokia (merkatuei erantzuteko ahalmena) lortzeko.

### ENTITATE ONURADUNAK

Gipuzkoan kokatutako eta lankidetzaren eta laguntza formularen baitako enpresak.

### DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diru laguntza jaso ahal izango dute enpresetan esku-hartze eta esperimentazio proiektu hauek garatzeko jarduerak:

- enpresen arteko lankidetzarako ereduak diseinatzea eta aplikatzea;
- enpresen dimentsio berriak sortzea;
- jarduera produktiboak Gipuzkoara itzultzea (Reshoring), baldin eta aurrez azpikontrataturakoak, tokialdatutakoak edota Gipuzkoako enpresek EAetik kanpo garatutakoak badira; eta,
- lankidetzan diharduten enpresen lehiakortasuna eta iraunkortasuna handituko duten lankidetzaren proiektuak gauzatzea Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritzaren eskumenen barruan.

### DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zabalduz gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak 12.oinarrian)

### DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Kostu hautagarrien % 75eraino



## EMATEKO PROZEDURA

Lehiaketa bidezkoa , deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

## BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan nazionala, izan Europar Batasuneko edo izan nazioartekoa, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina.

## BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: **2019ko apirilaren 30ean, goizeko 12:00etan amaituko da.**

Jarduerak hasteko epea: **diru laguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**

Proiektuen exekuzio data: **2020ko maiatzaren 15a**

Proiektuak justifikatzeko data: **2020ko ekainaren 15a**

## ARAUDI APLIKAGARRIA

“Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzaren sustatzeko” programaren **2019ko deialdia**: IV. ERANSKINA - Enpresen arteko lankidetzarako dinamikak egituratu. (2019ko martxoaren 12ko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 59 zk. 2019ko martxoaren 27an](#))

Oinarriak: [GAO 97 zk 2018ko maiatzaren 22an](#)

- [Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzaren sustatzea.](#)

## ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/elkarlana>

- Eskaera kudeatzeko aplikatiboa

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

## EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENEN ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

[sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus](mailto:sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus)